



BARREN
TOKIKOM

Txakurra, lagun eta terapeuta



Zapatuan danok kalera!

*Irten kalera, azaldu plazara,
eta esan, kamera zure aurretik pasatzen denean,
Elgoibar ederra eta euskalduna dela.*



Euskarak 365 Egun **LIPDUBa**

Azaroak 28, zapatua, 13:00
Maalatic Kalegoen plazara
(12:00etan entsaioa)

Beitxu, beitxu! PINTXO-POTEA (eguerdian hasi eta 15:30ak arte):

Ametsa, Gabi, Gorbea, Ilunpe, Iturri, Iriondo, Ibai-ondo,
Jai-alai, Kaia, Larre, Maala, Mahats, King-kong, Orbea, Pilon,
Salento, Tantaka, Txarriduna, Urkiola, Usua eta Viento Sur.

EUSKARAK
365
EGUN



NORA KORTABERRIA



*“Lipdub-a izanda, ezin naiteke etxean gelditu,
eta oker ez banago, Nerea, zu ere antzera egongo zara”*

Zer moduzkoa izan zaizu azaroa? Negu ilunera gerturazten ari garela gero eta gehiago nabaritzen da, eta, egia esan, zenbat aldiz komentatu dugu jada gai hau ingurukoekin? Niri behintzat egunero gogoratu didate Lorenzo oporretara joan dela denboraldi baterako.

Egia esan, komentarioak areagotzen ari dira iluntasun hau dela eta. Hala ere, ezin genezake aitzakiarik jarri, konponbide ugari baitauezkagu inguruan. Eta horietako bat, nola ez, elgoibartar artista talde bati esker eskura duguna. “Beitxu, beitxu euskeriaren doinuak ze martxa dakarren...!” gogoratzeko hain erraza izanda nola ez dugu ba zeri buruz ari garen jakingo? Sinplea, giro ederrekoa eta berezia, horrelakoa da kantua; eta ez kanta bakarrik, geure euskara ere bada. Dena dela, ezaugarri batzuk dituen arren, norberak bere nortasunaren zati bat eransten dio,

eta horri esker dugu geure-geurea. Honi lotuta, joan zen larunbatean izan zen lipdub-aren entsegua dugu islarik onena: hamaika elgoibartar, elkarte ugari eta onena, guztiak ezberdinak baina guztiak euskaldunak. Izan ere, kantuak dioen bezala, “auzia ez da izan ala ez izan, kontua ekitea da”. Ez dio ardurara Nora edo Nerea, Mohamed edo Piedad, guztiok geureganatu dezakegu euskara eta guztiok egin dezakegu euskara geurea. Beraz, zergatik ez ditugu iluntasun kontuak alde batera uzten, eta bide batez, datorren larunbateko lipdub-a dela eta Elgoibar eta elgoibartarrok alaitzen laguntzen? Guztiiontzako aukera da, eta bertan tokia aurkitu ahal izateko lehenengo pausoa ematea da egin beharreko “esfortzutzkoa”. Parada hau izanda, ezin naiteke etxean gelditu eta oker ez banago, Nerea, zu ere antzera egongo zarela iruditzen zait....



NEREA GURRUTXAGA



*“Kaleak hartuko ditugu, ozen eta alai esateko euskaraz bizi nahi dugula,
eta ez edonon, gure herrian”*

Kaixo, Nora! Azaro ederra izan dugu aurtengoa, epela eta eguzkitsua! Hala ere, iritsi zaigu hotza eta euria, gaizki ohitzen hasiak ginenean! Dena dela, espero dut eguzkiak azken ahalegin bat egitea, eta bihar elgoibartarrok bat egitea!

Ondo esan duzu Nora, ez da etxean gelditzeko eguna bihar-koa! Kaleak hartuko ditugu, ozen eta alai esateko euskaraz bizi nahi dugula, eta ez edonon, gure herrian, Elgoibarren, baizik! “Dive erdalduna dala” dio abestiak, eta askotan, nik uste, gu geure garaia etiketa hori jartzen diogunak herriari. Konplexu guztiak alde batera uzteko garaia iritsi da, eta daukagun giro euskalduna harro erakusteko! Ni elgoibartarra naiz, Nora, eta euskaraz bizitzeko aukera izan dut txiki-txikitatik. Horrek esan nahi du, eraiki ditudan harreman guztiak euskaraz izan direla, ez da gutxi, beraz! Beste

batzuek, heldutasunera iristean sentitu dute “mingain puntako azkuria”, eta beste zenbait berriz, orain ibiliko dira euskaltegieta ikastera sartzekotan. Zuk esan bezala, guztiok egin dezakegu euskara gurea, eta hori erabiliz lortzen da. Ezagutzatik erabilerara saltoa ematea da gehien kostatzen dena sarritan, eta batzuetan ematen du ez dagoela ezer gehiago egiterik. Frustratuta sentitu ohi gara euskaldunok, beti “ibai nagusixen kontra igerixan”, eta ahaztu egiten zaigu aurretik lortu den guztia. Lan asko dago egiteko, baina orain arte egindakoa baloratzea ere ondo etortzen da noizbehinka. Bihar, kantuan eta dantzari, kaleak betez, giro ezin hobean ospatuko dugu euskararen jaia. Lipdub hau izan dadila lanean jarraitzeko grina emango diguna, egin den ahaleginak askorako balio izan duela erakutsiko diguna. Plan hoberik ba ote?

ANE ASTIAZARAN

Itzulpengintza ikaslea



Barre masie pisuko eskatzen

euskalkien arteko desberdintasunez, baina nork pentsako luke etxe hura lehenengoz zapaldu genuenean ulermen arazoak ere ekarriko zizkigula dibertsitate horrek?

Hasi besterik ez zen egin nahasmen dialektologikoa. Horren ondoren etorri zen etxekoon euskalkiak bilduko zituen hiztegi bat osatzeren ideia. Pixkanaka hasi ginen bata bestearen hizkerara ohitzen, bata bestearen

“Hasi besterik ez zen egin nahasmen dialektologikoa.

(...)

*Zein ederra den,
batzuetan,
ulertu ezin hori”*

hitzak ulertu, barneratu, eta zergatik ez, erabiltzen. Arrotza izateari utzi zioten *morrotza*, *lukidxe*, *zaburridxek* eta antzeko berbek, eta Urnieta aldeko *Ekarriko nazu...?* ere onartu zuten gure belarriek.

Ederto baten zihoan guztia, ikasle pisuak berak armairu eta oheekin, mahai eta aulkiekin batera dakarren autonomiaz gain, ordura arte ezkutuan egon zen teloa zabaldu zitzaigun aurrean. Etxetik lehen aldiz irten eta orduraino mugatuta izan duen askatasuna aurkitu berri duen gaztea *lez* genbiltzan: ikusiz eta ikasiz. *Latz*. Eta gainontzeko euskalkien maila gorena lortzear geundela uste (eta sinetsi) genuenean...

– Beringanie lohi dau, auntek pasakot lanbasa.

– Neskak, lurra zikina dago, fregona pasa behar da.

Zein ederra den, batzuetan, ulertu ezin hori.

raileko iluntze batean hasi zen guztia. Kurtsoa hasi berri, sukaldeko mahaiaren bueltan geunden beste askoren artean entzuten den elkarrizketa eman zenean:

- Jertse hau zeinena da?
- Beringanien zauen?
- Ez, lurrean zagon.

Bermiotarraren barre algara artean konturatu ginen pisuko gainontzeko neskak *beringanie* zeritzona eta *lurra* sinimoak zirela. Arin ohartzen gara



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio, Leire Alberdi **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

ARGITARATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
1821-2021



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► TXIRRIPITXIOEI JARRAIKI

Ostiraleko aldizkariko *Zozoak Beleari* sailean, Arkaitz zozoak euskararen biziraupena soilik bi eremutan aurreikusten zuen, batetik, txakur eta umeei kiko ditugun sakontasun gabeko bakarriketetan, eta bestetik, glamurosoa dela irizita hizkuntzaren ikasle berrien inguru kulturean. Euskal filologo batek zioen antzinako euskaldunek txoriekin hitz egiteko abilezia zutela uste zabala dela; naturatik sortutako hizkuntza bailitza (agian horregatik Arkaitzek eta Ibonek hegaziak dituzte heteronimo). Aldiz, egun, euskaldun zaharren artean ere euskaraz bizitzea ahalegin artifizia bilakatzen da askotan. Hortaz, gure herrian *euskaldun-zar* gehi *euskaldun-zar* formula naturalak hizkuntzaren existentzia bermatzeko frakasatu egin duenean, eta instituzioen sustapen artifizialaren menpe gaudean, zergatik ez bultzatu gizartearen mestizajea azken muturreraino hizkuntzaren onbiderako? Ibon belea bera %100 *basque* ez dela ohartzean ez da etsitu. Orduan, zergatik ez baliatu inte-

grazioaren aitzakia eta lege bultzatu *euskaldun-zar* eta etorkinen arteko komenentziatzako ezkontzak ume euskaldunak atera daitezten? Nork daki, agian *erregetoia* euskaraz ere ongi gertatzen dela deskubritu dezakegu.

Z.S.A.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeetara zuzenduko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleaz datorren eskutitz argitaratuko.

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 741 626

Kalebarren plaza, 2
 20870 ELGOIBAR



ORBE

PERTSIANAK EGITEN DITUGU
 TOLDO MOTA GUZTIAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua
 Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

Jon Aranoa
 Guillermo Torres

Elgoibar
 Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
 Astekariak: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inoiz indogi zerbitzua daukagu.
 Dutsu ordua hartzeke.

atzak
 taberna

San Roke 28, behea
 943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu



Ehun boluntariok baino gehiagok parte hartuko dute Elgoibarko elikagaien bilketan asteburu honetan

Dena prest gaurko eta biharko elikagaien bilketarako. Elgoibarko talde eta erakunde ugari indarrak batu dituzte Gipuzkoako Elikagai Bankuarentzat bilketa lanetan jarduteko eta lankidetzaz horrek frutuak eman ditu janaria batzen hasi aurretik: Elgoibarren boluntario lana egiteko ehun lagunek baino gehiagok eman dute izena. Jende kopuru handi horri esker, oro har, boluntarioek bi orduko txandak egin ahal izango dituzte saltokietan.

Boluntarioetatik 12 lagun umeak izango dira. Elgoibar da Euskal Herriko leku bakarra haur boluntarioak izango dituen. Modu honetan, boluntariora zer den ikasi ahal izango dute eta gizartearen errealitatea ezagutzeko aukera izango dute.

Bestalde, Sanlo eta CD Elgoibar taldeek bat egin dute ekimenarekin. Elikagai kiloak jasoko ditu Sanlok sarreraren truke. CD Elgoibarrek, berriz, sarreretan jasotako dirua Elikagai Bankura bidaliko du eta jokalariek ere elikagaiak emateko konpromisoa hartu dute.

Elgoibarren Gizarteratze Mahaia eratu dute herriko hainbat



talde eta erakundek: Sartu, Lanbide, Nagusilan, Kalamua Guraso Elkarte, Elgoibarko Caritas, Pobreziaren Kontrako Plataforma, Stop Desahucios, Gurutze Gorria, Gazte Asanblada eta Udalak.

Bilketa gaur hasi eta bihar amaituko da, 09:00etatik 21:00etara.

Autoen erabilerari buruzko gogoeta sustatu du Mugikortasun Asteak

Mugikortasun Iraunkorreko Astea azken txanpan sartu da eta Udalak jakinarazi du ez dela aparteko arazorik sortu. Zama-lanen guneetan izan ezik, aste guztian erabat debekatuta egon da San Frantzisko, San Bartolome, Errosario eta Santa Ana kaleetan aparkatzea. Aurreko asteburuan eta orain datorren honetan ere Maalako zubia itxi egingo dute.

Mugikortasun Astearen bidez, autoaren erabilerari buruzko gogoeta sustatu nahi du Elgoibarko Udalak. Azken batean, pertsonen kontzientzia eragin nahi du, eta hausnar dezatela automobila erabiltzen duten aldi bakoitzean zenbatetan den beharzagatik eta zenbatetan erosotasunagatik. Herrien diseinuan automobilak pisu handia izan bazuen lehenago, etorkizuneko gutxiago izan beharko du, sustatzaileen arabera.

Mugikortasun asteari lotuta, hainbat ekimen izan dira Elgoibarren: bigarren eskuko azoka, udaltzaingoaren argibideak HH5eko ikasleei eta +60 taldeko kideen ibilaldia eta ariketa fisikoak.

Estrasburgok parte batean arrazoia eman dio Otegiren defentsari

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak aintzat hartu ditu Bateragune auzian Espainiak Giza Eskubideen Itunaren 6.1 artikulua urratu zela dioten alegazioak. Horregatik, gai hau aztertzea erabaki du. Estrasburgoko auzitegiak atzo kaleratutako ebazpenean, atzera bota zuen Otegi eta ezker abertzaleko beste lau kide kartzelan sartzeko epaimahaiaren inguruko inpartzialtasun ezari buruzko eskaera.

Atzoko ebazpenak, hortaz, ez du balioko Arnaldo Otegi kartzelatik ateratzeko, baina ebazpena bera garrantzitsua da, norma-lean era honetako gaiak ez baititu onartzen Estrasburgok. Giza Eskubideen Itunaren 6.1 artikulua arabera, kausa batean dauden pertsona guztiek dute eskubidea epaimahai inpartzial eta independente batek modu ekitatibo eta publikoan entzun ditzan, beti ere arrazoizko epe batean. Eskubide hori urratu ote den aztertuko beharko du orain Estrasburgok.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako jarrera erakutsi dute Elgoibarko eta Mendaroko bizilagunek hainbat ekitaldiren bidez

Azaroaren 25a eguna emakumeenganako indarkeriaren kontra agertzeko eguna izan zen mundu zabalean. Aldarrikapen horrek Elgoibarren eta Mendaron ere izan zuen lekua. Elgoibarren, esate baterako, arratsaldean *Emakumeenganako indarkeriari ez!* lelopean egindako kontzentrazioan jende ugari parte hartu zuen.

Mendaron, berriz, emakumeenganako indarkeria gaitzesteko ekimenak oso bestelakoak izan ziren. Ludotekako nagusiek eta



dantza modernoko ikasleek dantzak eskaini zituzten. Horrez gain, LHko umeek eta haien gurasoek egindako giraldez apaindu zuten udaletxeko balkoia. HHko umeek eta haien gurasoek puxika moreak puztu zituzten. Gero, herritarrek puxikekin mosaiko erraldoia osatu zuten. ETB1eko *Gu ta gutarrak* saioko partehartzaile batzuek, indarkeria matxistaren aurkako ekimen honekin bat eginez, Mendarora bertaratu ziren eta hango gazteekin batera argazkiak atera zituzten *photocallean*

Ainara Ladron orain bederatzi urteko auzi bategatik epaituko dute abenduan



Urtarrilean 9 urte beteko dira Ainara Ladron elgoibartarrak beste lau gazteekin batera, Zarautz parean A-8 autobidea itxi zuenetik, Segi erakunde "terrorista" izendatu izana salatzeke. Bide mozketa horren inguruko epaiketa orain dator. Astelehenean (abendua 1) hasiko da epaiketa Donostiako Lurralde Auzitegian. Fiskalak bina urte t'erdiko kartzela zigorra eskatzen du auzipetuentzat. "Berriro ere epaiketa politiko baten aurrean aurkitzen gara, eta ez gara bakarrak", nabarmendu dute auzipetuek. "Nazkatuta gaude eta nahikoa dela esatera gatoz. Gure herriaren alde lanean jarraituko dugu, borrokak emango digulako horren maitea dugun askatasuna", adierazi dute.

Belaustegi jatetxeak Tripontziak ekimenean hartuko du parte

Debegesak abenduaren 1etik 15era egingo den *Tripontziak* ekimen gastronomikoaren bigarren edizioa jarri du martxan. Debabarreneko Klub Gastronomikoko kide diren eskualdeko 13 establezimenduk hartuko dute parte, tartean Elgoibarko Belaustegi jatetxeak.

Ekimen honen helburua da tokiko eta sasoiko produktuen kontsumoa indartzea, eskualdeko ostalaritza sektoreari bultzada bat ematea eta Klub Gastronomikoa ezagutzera ematea.

15 egunean zehar, ekimen honetara atxikitutako establezimenduek bertako eta sasoiko produktuez baliatuz proposamen gastronomiko erakargarriak landuko dituzte prezio berezietan: *Tripontziak Menuak* 25 eurotan, *Tripontziak Pintxoak* 5 eurotan (2 pintxo eta 2 edari) eta *Tripontziak Egonaldiak* (ostatua gosariarekin, menua eta oparia) pertsonako 48 eurotan.

Ekimenari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, www.debegesa.eus webgunean.

Txakurrak, haur ezgaituen eta gizartearen arteko zubi

Elgoibarko Olaizaga kiroldegian elkartzen da astean birritan haur ezgaituen taldetxo bat *Lehen* txakurrarekin Anateusk elkartearen Afaine programaren baitan. Haurren garapen psikomotorea lantzeko, umearen partaidetza suspertzeko eta gizarteratzen laguntzeko txakurraren laguntza baliatzen dute. Elkarteko kideek Nuala Gardnerren bisita izan dute astean. Emakume eskoziar hau bi seme-alaba autistaren ama da, eta bere semeak txakurrarekin izandako bizipenak liburu batean jaso ditu.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



Nuala Gardner, martitzenean udaletxean egin zitzaion harreran.

Carlota udaletzeko pleno aretora sartu da eta urduri dago. Jende ezezagun asko, toki handia... Baina jende horren guztiaren artean lagun bat ikusi du: *Lehen* txakurra, animalien eta naturaren laguntzaren bidez pertsonen osasuna, hezkuntza eta ongizatea sustatzen dituen Anateusk elkarteko txakurra. Anateusken Afaine programa haurren garapen psikomotorea lantzeko metodologia berritzaila da. Txakur baten lankidetzarekin, haurraren partaidetza suspertzeko helburua du, baita animaliarekiko lotura sortuz animalia ere haurrari gizarteratzen laguntzeko erabiltzekoa.

Garun-paralisia du Carlotalak atzeratasun gogorarekin. Udalak jakinarazi zien Marisol Vergel eta Herminio De Carlo bere gurasoei proiektuaren berri. "Umearentzako lagungarri izan daitekeen edozerri heltzen diogu. Izan ere, ez dago ezer askorik horrelako umeentzat eta egiten den guztia ona da. Beraz, interesgarria iru-

ditu zitzaigun, eta probatzea erabaki genuen", esan digu Marisol Vergelek.

Anateuskek Udalarekin antolatutako ekitaldia izan da udaletxekoa. Izan ere, Nuala Gardnerri ongietorria egin diote udaletxean. Erizain eta emagin eskoziarra da, baina batez ere autismodun seme-alaben ama. Aitzindari da munduan, txakurren laguntzarekin desgaitasuna duten haurrak gizarteratzeko egin duen borroka dela-eta. Dale semea gizarteratzeko txakurrak zeregin garrantzitsua izan du eta ezagutarazteko bi liburu idatzi ditu: *A friend like Henry* eta *All because of Henry*. Lehenengoan oinarrituta *After Thomas* filma egin zuten eta atzo, osteguna, eman zuten Elgoibarren.

Nualak nabarmendu du txakurren laguntzarekin bideratzen diren programa soziosanitarioen garrantzia desgaitasuna duten pertsonekin, haur eta helduekin, helburuak lortzeko. Horretarako,

“Oraindik asko

daukagu

txakurrengandik

ikasteko eta

beren laguntza

ezinbestekoa

zaigu terapia

hauetan aritzeko”

bere semearen aurrerapenak kontatzeaz gain, behin eta berriz goraiatu du Anateuskek egiten duen lana. “Sekula ez nuke pentsatuko hainbeste lan egin ahal izango zenik txakurrekin eta autismoa edo bestelako ezgaitasunak dituzten umeekin, beraz, garrantzia handia du Anateusk egiten ari den lanak. Pozik nago hemen egoteaz eta Anateusk Afaine proiektuarekin egiten ari den lan terapeutikoa ikusteaz. Anateusk txakurren bitartez hainbat lan egiten ari da eta txakurra presente egongo ez balitz pertsona asko kontratatu beharko lirateke. Txakurra hiru edo lau lagunena egiten ari da. Hezitzaile papera jokatzen du eta baditu pertsonok ez dauzkagun hainbat kalitate”.

TXAKURRA ESPRESIOBIDE

Carlota txakurra lagun eta hezitzaile hartuta egiten ditu ariketak Kiroldegan astean behin. “Horrelako umeek ez daukate gai-

nontzekoek bezala eskolaz kanpoko ekintzak egiteko aukerarik. 15 urte bete behar ditu eta ez da ez ume ez nerabe eta horientzat ez dago apenas ezer aisialdirako edo gizarteratzeko ahalegina egiteko. Lehen igerilekura joaten ziren eta orain igeriketa saioak txakurrekin egiten duten terapiara aldatu dute. Carlota astean behin joaten da eta hainbat bideotan ikusi ditugu txakurrekin komunikatzen saiatzeko egiten dituzten ariketak. Izan ere, terapietara joaten den umeen gehiengoak ez du hitz egiten, ez da ahoz komunikatzen”, esan digu amak.

Nuala Gardnerrek ere jakinarazi du Erresuma Batuan frogatuta dagoela era horretako terapiak eraginkorrak direla eta diru asko aurreratzen dutela epe luzera. “Oraindik asko daukagu txakurrengandik ikasteko eta beren laguntza ezinbestekoa zaigu terapia hauetan aritzeko. Anateusen lanaren bitartez haur hauek bestela beharbada izango ez lituzketen aukerak izan ditzakete”.

NUALA GARDNER, bi seme-alaba autistaren ama eta idazlea

“Txakurrek badituzte gaitasun batzuk gizakiok ez ditugunak”

◆ Txakurrak eta umeak zer eskaintzen diote elkarri?

Gure semearen kasuan txakurrak Daleri lagun on bat eman dio eta txakurrak jabe berezi bat. Jabe hortara moldatu zen eta hori beretzat berezia izan da. Dena dela, txakur bidezko terapiak beste terapia batzuen lagungarri dira eta ez gaitzen erabateko sendabidea.

◆ Autismoari dagokionez mito asko dago. Nola egin dakieke aurre?

Liburua horretarako bide bat da eta lortzen ari gara. Bada ezgaitasunak dituen jendea, baina ez erabatekoak eta beraiei entzun eta erreparatu behar zaie zer dioten eta zer egiten duten. Era berran ikusi behar da laguntza elkarrekin egindako saioek zein emaitza dituzten. Horregatik nago hain pozik hemen egindako lana gertutik ezagutzeko aukera izan dudalako. Jakin dut Carlota De Carlo –autismoa ez, garun-paralisia du–, gorpildun aulki batean zegoela eta

orain, laguntzarekin, baina oinez ibiltzen da eta horretan txakurraren laguntza ezinbestekoa da.

◆ Horrelako ezgaitasunak dituztenek kontrola ditzakete txakurrak ala laguntza behar dute?

Gaitza duen bakoitzaren arabera da. Txakur laguntzaileak bereziki prestatzen dira lanak errazteko. Esaterako, gizakiak aspertu egin gaitzke edozein gauza jasotzeaz eta txakurrak ez. Nolabaiteko askatasuna emateaz gain txakurraren maitasuna jasotzen dute. Oso garrantzitsua da gizartearen mende egotetik gizar-teari laguntzera pasa daitezkeela ikustea eta horrelako terapiekin, txakurren indarrarekin diru asko aurreratzen da. Bestela diruz ordaindu beharko liratekeen gauza asko egiten dituzte txakurrek horrelako ezintasunak dituztenekin eta gainera lan hori egiten gozatu egiten dute.



◆ A friend like

Henry eta All because of Henry liburuetan autismoa duen zure semearen eta Henry txakurraren arteko harremanaren istorioa kontatzen duzu. Zer helarazi nahi diezu irakurleei?

Oso garrantzitsua da nire seme Daleren istorioa ezagutzea eta jakitea txakurraren indarra sekulakoa dela eta lagun diezaiekeela autismoa edo beste ezgaitasun edo gaixotasunak dituzten beste ume askori. Txakurrek badituzte gaitasun batzuk gizakiok ez ditugunak: baldintzarik gabeko maitasuna, sekula bazterreraz ez uztea, sekula hitzez edo galderaz ez jostea, pazientzia handia eta sekula ez nekatzea umeekin jolasteaz eta elkarri eragiteaz. Oso hezitzaile onak dira eta hori da hain zuzen ere Elgoibarren Afaine proiektuan baliatzen dutena.

UDALAREN BABESA

Terapia hauek abian jartzeko Udalak babesa eman dio Anateuski. Gardnerren harrera ekitaldian Ane Beitia alkateak esan du, urteak direla Udala gizarte inklusibo baten alde lanean ari dela, pertsona guztiengana iritsi nahian. "2008 inguruan, Udal hausnarketa baten ondoren ikusi zen haurrei eta nerabeei eskainitako Udal zerbitzu guztiak ez zirela denentzat integratzaileak. Ondorioz kirol, ongizate eta gaztedia sailetatik erabaki zen behar bereziak dituzten haur eta nerabeentzat egokitutako hainbat eskaintza egitea, tartean Anateuskena".



Anateuskeko ordezkari Eneko Kortabarrak Udalaren babesa eskertu du jakinaraziz Europan ez dagoela horrelako terapia bat Udal kiroldegi batean egiten den beste kasurik. "Poliki-poliki programa hau erreferente bihurtu da. Anateuskek hainbat arlotan beste programa batzuk ere badauzka, esaterako, orain ospitalekin ari gara lanean. Gure jarduna ezagututa Nuala harrituta dago programekin ez ezik ikusita Udal batek nola lagun diezaiokeen horrelako programa bati". Anateuskek haurraren garapen psikomotorearen eta gizarte integrazioaren hainbat arlo lantzen ditu txakurren bitartez. "Txakurra gizartearen eta umeen arteko zubi. Umeak motibatu eta gurekin lan egin dezaten baino ez dugu nahi".

HOBKUNTZAK ETA AURRERAPENAK

Carlota gurasoek ere badakite nola elkartzeko dituen txakurrak umea eta bere ingurua. "Guk ez dugu ikusten egiten duena, baina oso pozik jaten dela sumatzen dugu eta irakasleak ere hala esaten digu. Lehen ez zituen batere gogoko animaliak eta orain gerturatu ez ezik laztandu eta musukatu ere egiten du txakurra. Lehen ileek goragalea ematen zioten, baita peluxeek ere, ezin zuen jan animaliren bat gertu zegoenean. Orain, txakurraren soinua ere egiten du, bestela ez du hitz egiten. Nik hobekuntza sumatzen diot".

Nuala Gardnerren seme Dale-ren eta bere txakur Henryren arteko harremana erakusten du atzo Herriko Antzokian eman zuten filmak. Txakurra Dalen konfiantza, maitasuna eta laguntasuna irabazten joan zen eta umearen inklusio soziala eta hezkuntza izan

duen garrantzia islatzen du. Harrera ekitaldian ez dituzte filmako irudiak erakutsi, Dale-ren eta Henryren irudi errealeak baizik. Irudiak ikusi ahala Eneko Kortabarrak esan du Dale azaltzen ari dela nola ikusten zuen berak mundua, zein esanahi duen munduak beretzat. "Mundua zatika ikusten duen puzzle baten piezak balira bezala". Nualak esan zuen orain dela 20 urte Dale Henryren bitartez irakurtzen zuela. "Henry bihurtu zen Dale eta munduaren arteko zubi. Hasieran txakurrak erakusten zion Dale-ri eta orain alderantziz ere gertatzen da. Autismoaren barruko keinu propioak daude eta txakurrak umearengana gerturatu eta berriz ekartzeko da esan nahi duena, berarekin jolasteko eta bere egoeratik ateratzeko".

Carlota ere jolas egiten du *Lehen* txakurrekin. "Zirindolak hartu eta sartzen dituzte txakurraren laguntzaz. Etxean arretarik ez du jartzen horrelako ariketetan, txakurrekin, ordea, gogoz egiten ditu. Txakurrak gidari lanak egiten ditu eta etxean behar bada gurasoek egiten dugun arren guri kasurik egin ez eta han Lehen txakurrari bai. Estimuluak beti on egiten diete horrelako ezgaitasunak dituzten umei", esan digu amak.

Astean behin baino ez da josten Carlota *Lehen*-engana eta etxean txakurrik izatea bururatu al zaien galdetu digu gurasoei.



Aitak dio pentsatu dutela noizbait, "baina etxe txiki batean bizi gara eta oraingoz ezin dugu. Txakurrekin ibiltzeak asko estimulatu du, erraztasun asko eman dizkio: aurrera eta atzerako mugimendua, kemena, arnasketa, etxean barrena mugitzeko aukera. Beretzat jostailu baten antzerakoa da. Denbora gehiagoz egonez gero aurrerapenak handiagoak lirake".

Kiroldegian jarraituko du bien bitartean Carlota *Lehen*-ekin jolasean. Lehen pausoak eman ditu eta zubian aurrera eginez gizarteratzeko bidean segiko du txakurraren eta beste kideen laguntzaz".

“Elkarteen erantzuna ona izan da eta orain herriarena nahi dugu”

▶ JOSU MUJIKA DANTZARIA ETA KOREOGRAFOA

Elgoibarko Euskarak 365 egun taldeak *Beitxu, Beitxu!* kantuarekin lipdub-a grabatuko dute herriko kaleetan bihar, azaroaren 28an. 12:00etan herria girotzen hasi ondoren, 13:00etan Maalan ekingo diote grabaketari. Josu Mujika dantzari eta koreografoa arduratu da parte hartuko duten taldeak koordinatzeaz, espazioak eta une musikalak antolatzeaz eta duen berak eman digu lipdub-aren berri.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



◆ Herria hankaz gora jartzea omen da zuen asmoetariko bat.

Helburua da herriko erakunde eta taldeek bat egitea ideia, intentzio bat aldarrikatzeko: euskara. Denok bat egin dugu: mota guztietako taldeak, ikastetxeak, alderdi politikook... Elkarteen erantzuna ona izan da eta orain herriarena nahi dugu, kale izkinetan animatzen egotea. Elgoibar herri euskalduna da, eta zapatuak jai bat izan behar du. Gai euskaldunekin lotutako gauzekin sarri jartzen dugun ezkutua ahaztu eta modu pozgarri eta dibertigarrian esan daiteke gauza bera.

◆ Jai itxura hartzeko, ordea, taldeen parte hartzea ezinbestekoa da, ezta?

Talde batzuek hartu diote puntu dibertigarria eta entsegura arropa bereziekin edo ileordeekin etorri eta dibertitu ziren. Energia azaldu behar dute, eta nire ustez herri guztiak hartu behar du parte. Gauza asko esaten dira eta ez da bakarrik politika edo dirulaguntzak, norberak bizi eta aurrera egin behar du honekin eta ze modu hoberik jai bat antolatzea baino.

Gainera, uste dut grabazio egunean jende gehiago egongo dela. Feria eguna da, eta 12:00etan hasiko da jai giroa.

Gainera, erakunde eta taldeek zabalduko dute inguruan zapatuan hau dagoela.

◆ Taldeen aldaketa horiek guztiak aldatzea zaila izan al da?

Bai. Ez da taldeei parte hartzeko esatea soilik. Musika eta mugimendua dagoenez, asko blokeatu egiten dira. Entseguetan esan nien energia jartzeko, dibertitzeko, mugitzeko. Musikak berak asko laguntzen du, Aitor Novak oso abesti erakargarria egin du eta Uxue Alberdiren letra ere oso polita da. Entseguek balio izan dute talde batzuek ikusteko besteek zer egiten duten eta ideiak hartzeko. Ni espazioak eta une musikalak antolatzen egon naiz eta esan niezaiekeen hau edo bestea egiteko, baina pentsatzen dut interesgarriagoa dela beren proposamenak entzutea. Urbizikoak, esaterako urpekaritza bonbonekin etorriko dira, beste batzuk ileordeekin...

Entseguan denak kalean jarri nahi nituen taldeek ikusteko zer den eta ez dela uste zuten besteko zaila. Erropek-eta la-

gunduko dute, baina umore pixkat ere jarri behar da jai bat delako.

◆ Kalegoen plazan egingo duzuen koreografiak zer islatu nahi du?

Bereziki ezer ez. Udako kantuek izaten dituzten dantzen itxurakoa da. Gure ikasleekin bageunde bezala hasi ginen prestatzen, baina konturatu ginen askoz errazagoa egin behar genuela. Baditu hitzekin bat datozen mugimenduak, esaterako, “beitxu beitxu” esaten denean eskuak begietara gerturatzea. Dantza martxosoa eta erraz ikastekoa da.

◆ Zapatuan, beraz, jai giroa izango da kalean?

Ea jendea animatzen den kalera ikustera bada ere. 60 talde jarraian ikustea polita da. Parte hartzaile asko gara eta espero dut plazan gehiago elkartu eta giro ona egotea txarangarekin, pintxo potearekin... Ea eguraldia lagun dugun. Eskatuko nituzke 20 gradu, lainotuta (kamerarentzat hobe), baina ez triste.

▶ Elgoibarren aurkitutako Brontze Aroko aizkora gipuzkoarren esku laga du Jose Julian Marquezek

Jose Julian Marquezek orain dela 3.500 urte inguruko aizkora aurkitu zuen umetan, Elgoibarko Morterika errekan. Balio historiko handiko pieza hori etxean gorde eta zaindu du bitartean. Ondare horrek elgoibartar eta gipuzkoar guztien esku egon behar duela iritzita, Gordailuari utzi dio bere aurkikuntza, Gipuzkoako Ondare Higigarrien Zentroari.

1985ean, 11 urte inguru zituenean, egun batean Morterika errekan zebilen Jose Julian, zerbaiten bila. Izan ere, amurruinak harrapatzea eta mineralak aurkitzea ikaragarri gustatzen zitzaion. Uretan, zerbaitek dir-dir egiten zuten. Hasieran pirritzako mineralen bat izango zela pentsatu zuten, baina uretatik ateratakoan pieza zaharren bat zela konturatu zen.

“Etxera joan nintzenean, konturatu nintzen Pilarreko 3. mailako historiako liburuan antzeko tresna agertzen zela”. Esku artean zuena Brontze Aroko aizkora bat zen, orain 3.500 urte egindakoa. Aurkikuntza hark bere bizitzan sekulako eragina izango zuen.

Leizarpe espeleologia taldeak Aranzadirekin jarri zuen harremanetan, eta Zientzia Elkarteak bi urtez ikertu zuen pieza. Uztaidun aizkora bat da, brontzez eginkoa. Euskal Herrian era honetako oso aizkora gutxi agertu izan badira ere, Penintsulako Kantauri isurialdean eta Portugalen gehiago topatu dituzte.



Jose Julian Marquez, orain dela 20 urte aurkitutako aizkoraren erreplikarekin.

“Pieza honek ohartarazten gaitu etorkizunean gerta daitezkeen beste aurkikuntza posible batzuen inguruan”

Historiaren zati bat

Brontzez egin zuten Morterikako aizkora. Horretarako molde bat erabili zuten. Lanabes honek balio handia

izango zuen garai hartan, mineralak lortzea, urtzea eta lantzea prozesu zaila zen eta.

Jose Julianen ustez, gutxi dakigu Elgoibar inguruko historiaurreaz, baina aizkora honek hainbat pista ematen dizkigu. “Pieza honek ohartarazten gaitu etorkizunean gerta daitezkeen beste aurkikuntza posible batzuen inguruan”. Beharbada, Urasandiko Talairan zegoen meategi batekin zerikusia izan lezake aizkorak, edo beharbada Moruko asentamenduetarekin.

Elgoibartarrena

Azken batean, Elgoibarko historiaren zati garrantzitsua da Jose Manuelen aizkora, erreminta-makinaren hiriburuan aurkitutako metalezko erremintarik zaharrena baita. “Pieza hau elgoibartar guztiona ere bada nolabait”, uste du. Horregatik erabaki du aizkora Gordailuan uztea, elgoibartar eta gipuzkoar guztion esku. Joan zen astean, azaroaren 20an, tramitatu zuen lagapena.



Aizkoraren irudia (Argazkia: Gordailua).

Aisia eskaintza oparoa oporraldian

ATXUTXIAMAİKAREN, GAZTELEKUAREN ETA LUDOTEKAREN PROGRAMAZIOA

Haur eta gaztetxoek neguko oporraldia gainean dugun honetan, Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaika eta Udalaren ludoteka eta Gazteleku zerbitzuak aisialdirako egitarau zabalarekin datoz. Txokoak, irteerak, kontzertuak, film emanaldiak, kotilloiak eta abar luze bat eskaintzeko lanean ari dira hiru eragile horiek.

Atxutxiamaikak aurten ere Neguko Txokoak eskainiko ditu oporraldiko egun gehienetan, urteroko moduan. Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejiraren bueltan jende asko ibiliko da abenduaren 24an. 08:45etan hasiko da Diana, Kalegoen Plazan. Protagonistak Olentzero, Mari Domingi eta haien inguruko neska-mutilak izango dira. Baina 11:00etatik aurrera hasiko da benetakoa saltsa, Kalegoen plazan. Ume eta



Atxutxiamaikako, Ludotekako eta Gaztelekuko lan-taldea.

gaztetxoak ez ezik, herritar guztiak ere gonbidatu ditu Atxutxiamaikak. Eguerdian, kalejiraren ostean, umek Olen-

tzerori eta Mari Domingiri gutunak emango dizkiete. Informazio gehiago, elgoibarkoizarra.eus webgunean.

A G E N D A

- Olentzeroren etxea bisitatzeko familia irteera: Abenduaren 12an (Atxutxiamaikak eta Ludotekak antolatuta).

- Atxutxiamaikako Neguko Txokoak: abenduak 21, 22, 23, 28, 29, 30 eta 31 eta urtarrilak 4, 5, 7 eta 8. Izen-ematea, elgoibarkoizarra.eus gunean edo Elgoibarko Izarraren bulegoetan. 5,5 euro (50, bazkideen kasuan).

- Film emanaldia eta txokolatada: abenduaren 21ean, Ludotekan.

- Santo Tomas eguneko txistorrada: abenduaren 21ean, Gaztelekuan.

- Gabonetako sukaldaritza tailerra ludotekan: abenduaren 22an, Ludotekan.

- Eguberrietako eskulan bereziak: abenduaren 22an, Gaztelekuan.

- Merienda eta diskofesta: abenduak 23. Ludotekan.

- Makillaje tailerra: Abenduaren 23an, 17:00-20:00, Gaztelekuan. 3 euro. Izen-ematea: abenduaren 18ra arte.

- Olentzeroren kalejira: diana 08:45etik aurrera. Kalejira 11:00etatik aurrera hasiko da.

- Lasergunera irteera: abenduaren 27an. Prezioa: 9,5 euro. Izen-ematea: abenduaren 16ra arte, Gaztelekuan.

- Bilboko Umeen Gabonetako Parkera irteera: abenduaren 28an. LH3-6ko ikasleentzat. Prezioa: 11 euro (ludotekako eta Elgoibarko Izarrako bazkideek eta Daixolako erabiltzaileek 9 euro). Izen ematea: abenduaren 1etik 15era.


- Ping-Pong txapelketa: abenduaren 28an eta 29an, Gaztelekuan.

- Elgoibarko izotz-pistara irteera: hilaren 29an, patinajea eta hockey txapelketa. Izenematea: hilaren 1etik 15ra, Ludotekan.

- Urte amaierako kotilioia: abenduaren 30ean. LH3-6ko ikasleentzat. Prezioa: 1,5€ (ludotekako eta Elgoibarko Izarrako bazkideek eta daixolakoek 1€) Izen ematea: abenduaren 1etik 15era.

- Gabon Zahar zoroa: abenduak 30, 20:00-00:00. Izen-ematea: abenduaren 23ra arte, Gaztelekuan.

'Ametsen liburua' koordinatu du Jokin Urain idazle mendaroarrak



Aurkeztu berri du Astero argitaletxeak *Ametsen Liburua*. Eskutitz, marrazki, argazki eta poemenez bidez, 474 preso, preso ohi, deportatu eta erbesteraturen amets, desio eta sentimenduak jaso ditu, baita 47 euskal artistaren lanak ere. Hori guztia 960 orrialdetan. Jokin Urain *Kixkur* preso ohi eta idazle mendaroarrak koordinatu du liburua.

Arrazoi politikoengatik preso dauden edo egon diren, exiliatutako, deportatutako bostehun euskal herritarri zer ametsen duten galdetu zien, baita iraganean edo oraindik exilioa, konfinamendua edo deportazioa ezagutu dutenei.

Elgoibar eta mendaroarren lanak

Liburuan mendaroarren eta elgoibartarren lanak ere badaude. Aitor Etxeberria artista mendaroarra eta Elgoibarko beste hauenak: Arnaldo Otegi ama zenari idatzitako eskutitza, Juli Arregiren marrazki bat, Inaxio Iriondok espetxean ezagututako preso arrunt bati buruz egindako idatzia, Mikel Alberdik atxilotu berritan Udalerari idatzitako eskutitza, Iñaki Odriozolak egindako idatzi eta marrazki bidezko konbinazioa eta Ane Beristainen kartzelako gogoetak. Jokin Urainek berak liburuko egileen lana koordinatu ezezik honen hitzaurrea idatzi eta berak etxeko idatzitako gutun bat ere kaleratu du. Jadanik salgai dago liburua 50 euroan eta nahi dutenek info@ametsenliburua.info helbidean eska dezakete, baita *Gara*, *Berria* edo *Argiak*o kupoiekin kioskoetan eta Durangoko azokan ere salgai egongo da.

Zinema emanaldiak iragarritako orduan hasiko dira

Udaleko Kultura Sailak herritarrei jakinarazi nahi die, datorren asteburutik aurrera zinema emanaldiak aurrez iragarritako orduan hasiko direla. Kultura Sailaren arabera, saioa hasi aurreko azken hamar minutuetan joaten dira erabiltzaile gehienak sarrerak erostera, eta ilaran jende asko pilatzen da. Orain arte, jende guztia aretora sartu arte ez zen filma hasten eta, hori dela eta, jendea kexatu egin da. Beraz, filmak iragarritako orduan hasiko dira eta herritarrek garaiz joan beharko dute takilara, saioa baino ordu erdi lehenago. Jendea garaiz joanez gero, saioak garaiz hasteko moduan izango dira.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

aldaz
hartz klinikak

RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&mas
Fisioterapia aurreratu eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com
RPS 172/19

CLINICA DENTAL
ELIZPE
HORTZ KLINIKA

RPS 88/15
Elizbun, 3 - SORALUZE
Tel.: 943 752 567
Asteleheneetik ostiralen
10:00-13:00 / 16:00-20:00
e-mail: elizpe3@gmail.com

Garazi
Sampedro
Arando
RPS 169/15

ERROSARIO
HAGIN KLINIKA

Errosario, 7
Elgoibar
943 743 679

AUDIOLOGIA ZERBITZUAK
OPTIKA

RPS 183/12

Uzuri
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Castolaza, 7 - Deba - Tel.: 943 182 182

Mari Jose Ruiz Porres
Doktorea
GINEKOLOGOA

R.P.S. 82/15
Madina Radiologia
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar
Tel.: 943 202 857
mj.ruizporres@gmail.com

leku eder
hartz klinika

RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus

RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Jolasak, kantua eta dantza izango dira Elgoibarren eta Mendaron Euskararen Egunaren aitzakian

Euskararen eguna izango da abenduaren 3an, egunean. Euskara jendartera zabaltzeko eta Elgoibar eta Mendaroko hainbat tokitan lekua hartzeko makina bat ekintza antolatu dituzte, batik batik ikastetxeek.

Bihar, zapatua, lipdub-a grabatuko dute herriko erakunde eta elkarteetako ordezkariak Elgoibarko kaleetan Euskararen Egunaren aitzakian, baina egunean bertan ere egongo da euskararen usaina non sumaturik.

Ikastetxeak

Elgoibarko Herri Eskolak lelo lehiaketa eta euskal kantuekin jolas-orduetan girotze kanpaina egingo ditu Euskararen eguna baino lehen. Egunean bertan, ikastetxetik herriko kaleetara aterako dira. 9:30etik 11:30era kalejira egingo dute eta jarraian, disko-festa Maalako parkean. Arratsaldean, jolasak egingo dituzte mailaka banatuta.

Elgoibar Ikastolan ere aurreko asteetan girotze lanak egin ondoren, abenduaren 3an ikastetxean ospatuko dute. 9:20an Haur Hezkuntzako ikasleek Argixoren antzerkia ikusiko dute eta ondoren erdiko aretoan pregoia irakurri eta kantu-saioa izango dute. DBHko ikasleek *Argi Txo!* gif lehiaketa ere egingo dute. 10:45etik 12:30ak bitartean herri-kirolak, altxorraren bila, trebezia lehiaketa... egin eta DBH 2. eta 3. mailako ikasleek *Urte Berri on, amona* filma ikusiko dute. Bien bitartean DBH4ko bi ikaslek egunaren gaineko erreportajea egingo dute. Arratsalderako txokolata jana eta dantza saioa antolatu dituzte.

IMHn Oskorri taldearen doinuekin hasiko dute eguna eta argazki-hitz lehiaketa egingo dute egun osoan. Erreminta makinaren irudia euskarazko hitz-esaldiekin lotuz. 9:00etan *Hizkuntzen kudeaketa*, sentiberatze saioa egingo dute heziketa zikloetako lehen mailako ikasleek. Gero,



Euskararen Egunean iaz Elgoibarren egindako ekitaldi nagusia.

Danobatgroup eta Euskara Ikusgarria lehiaketan emaitzak eta kultur bonuaren zozketa egingo dute eta bukatzeko, 11:15ean lankideen arteko euskara tratuaren berrespena eta Euskara Ikusgarria lehiaketaren aitortza.

Elgoibarko Institutuko batxillerreko ikasleek Herriko Antzokian egingo dute jaialdia 12:15etik aurrera. Euskal dantzak, koplak, musika, manifestuaren irakurketa, Ljlipdubaren bideoa, ikasleen antzerkia eta bertsoak izango dira jaialdian. DBHkoek Arreiturren arratsaldeko bi ikastorduetan: Tribuaren berbako bideoa, lipdubarena, manifestu irakurketa, irakasleen bertsoak, flashmoba eta txokolata jana euskal musikaz lagunduta.

Bestalde, Elgoibarko Ikastetxeek Euskararen Egunari jarritako koplekin grabatutako bideoa eskainiko dute ikastetxeetako jaietan.

Danobatgroupek lehiaketa

Danobatgroupek *Euskara aldean, erabili lanean* lelopean ospatuko du eguna. Batetik, ikasle eta langileei zuzendutako lehiaketa egingo dute DBH 3 eta 4 eta Lanbide heziketako Elgoibar, Bergara eta Soraluzeko eskoletako 1.500 ikasleei eta taldeko 1.000 langileei zuzenduta. Parte hartzeko Danobatgroupeko webgunean

hainbat gai teknikorik buruzko galderak erantzun beharko dira euskaraz. Opari bana jasoko dute eta hainbat tablet zozketatuko dira.

Bestalde, kooperatiba bakoitzak bere aldetik hainbat ekimen antolatu ditu egun horretarako bertarako: kafea doan, bizkotxo txapelketa, hitzaldiak...

Filma iluntzean

Ikastetxeetan egunean barrena aritu ondoren, iluntzerako egin dut deia Udaleko Euskara Sailak. Ongarrirekin elkarlanean *Euskara munduan* filma emango dute 21:30ean Herriko Antzokian. Dokumental horretan Iñigo Asensiok munduko bost kontinenteetako 14 herrialdeetan profil ezberdineko euskal hiztunen testigantzak jaso ditu pertsona horiek euskararekin zer harreman duten erakusteko.

Mendaron zapatuan

Euskararen Eguna aurten ere ospatuko dute Mendaron, baina abenduaren 4an, barixakuan. Arno guraso elkarteak deitu eta herriko beste hainbat talderekin elkarlanean kantu jira egingo dute mendarorrek 19:00etan hasita. Plazatik Azpilgoeta auzora joan eta gero San Jose Aldera abiatuko dira Mendaroko kaleak euskal abestiz jantziz.

Jokin Muñoz mendarorarrak irabazi du Alkortako 10. Igoera

J oan den zapatu goizean egin zuen eguraldi hotz eta euritsuak ez zituen kikildu eta 22 korrikalari batu ziren Mendaroko plazan, iaz baino lau gutxiago, Alkortako hamargarren igoeran parte hartzeko prest. Jokin Muñoz mendarorarra izan zen guztietan azkarrena eta 22 minutu eta bi segundoan osatu zuen Mendaroko Herriko Enparantzatik Alkorta baserriko atarira arteko 4,7 kilometroko ibilbidea. Inigo Lazkano zen orain arte proba irabazi zuen azken



mendarorarra. 2011n lortu zuen garai-pena, orain arte ondu ez duten marka ezarrita: 20:24. Triatloietan aritzen den Muñozen atzetik sailkatu zen Ion Revert, irabazlearengandik 12 segundora; eta, Unai Etxeberria elgoibartarra sailkatu zen hirugarren postuan, 22:25ko denborarekin. Mendaroko ezker abertzaleak antolatu du Alkortako X. Igoera, euskal presoek eskubideak aldarrikatzeko.

Nora Kortaberriak Euskal Selekzioaren deia jaso du

Emakumezkoen senior mailako Euskadiko Eskubaloiko Selekzioaren deia jaso du Nora Kortaberria Bilbao (Elgoibar, 1997) eskubaloiko jokalaririk. Euskadiko, Angolako eta Espainiako Eskubaloiko Federazioaren barruko Unibertsitateko selekzioek Getxon jokatu duten txapelketan hartuko du parte, azaroaren 23tik 27ra bitartean. Kortaberriak Zarauzko Aiala taldean jokatzen du, Espainiako Emakumezkoen Ohorezko Mailan.



Abian da Sanlo Eskubaloiko Eskolaren Neguko Kanpaina

Sanlo Eskubaloiko Eskolak hainbat ekintza antolatu ditu neguko oporraldirako. Abenduaren 21ean hasi eta urtarrilaren 8ra bitartean egingo dute Neguko Kanpaina benjamin mailako neska-mutilentzat. Egitarau zabala prestatu dute, tartean Bilboko PINa bisitatzeko irteera, urtarrilaren 4rako. Gaur (azaroak 27) zabaldu dute izena emateko epea eta abenduaren 11ra bitartean egongo da apuntatzeko aukera. Informazio osoagoa: <http://www.sanlo.net/?p=867>

Elgoibarko Nazioarteko 25. Xake Txapelketa abenduaren 14tik 20ra bitartean jokatuko dute



Maisuen Elgoibarko Nazioarteko Xake Txapelketa 25. ediziora ailegatu da aurten. Abenduaren 14tik 20ra bitartean udaletxeko pleno aretoan jokatuko dituzte partidak nazioarteko hamar xakelarrik, eta horien artean izango da Gustavo Barrenetxea elgoibartarra, hirugarren urtez jarraian. Hona hemen gainerako partaideen izenak: Angel Arribas (Espainia), Misa Pap (Serbia), Jaime Santos Latasa (Espainia), Ider Borya (Frantzia), Ori Kobo (Israel), Dragan Paunovic (Serbia), Santiago Gonzalez De La Torre (Euskal Herria), David Astasio (Euskal Herria), eta Patrice Etchegarai (Euskal Herria). Azken honek irabazi zuen iaz torneoa. Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak, Zubi-Ondo xake elkarteak eta Euskal Xake Federazioak antolatzen dute xake txapelketa.

2016an mendian federatzeko epea zabalik Morkaikon eta Lizarpen

Datorren urterako Mendi Federatu txartelak tramitzatzeko epea zabaldu dute Elgoibarko eta Mendaroko mendi taldeek, Morkaikok eta Lizarpek. Mendaroko Lizarpeko bazkide egin nahi dutenek lizarpe.blogspot.com web orrian jarri duten formularioa bete beharko dute. Euren datuekin osatu ostean, lizarpemk@gmail.com helbidera bidali beharko dute gero. Korrika egiteko arropa eskatzeko aukera ere ematen dute. Era berean, Morkaikok ere federatu txartela egiteko gomendatu die mendizaleei, mendiko istripuetarako aseguruia edukitzeko modua dela-eta. Formularioak eta argibideak www.morkaiko.eus webgunean aurki daitezke.

CD Elgoibarri buruzko libururako argazkiak

CD Elgoibarrek ehun urte beteko ditu 2017an eta mendeurrena ospatzeko hainbat ekintza antolatzen dihardu kirol-taldeko batzorde batek. Besteak beste, liburu bat atera nahi dute Klub Deportibo Elgoibarren historiari buruzkoa, eta liburu osatu ahal izateko argazki zaharrak behar dituzte. CD Elgoibarrek zerikusia duten argazkiak dituzten zaletu eta herritarrek honako denetara eraman ditzakete erretratuak: Azkue Argazkiak, Irudi Argazkiak, Mekanosa eta Jasone Zerbitzu Grafikoak. Kosturik gabe aterako diete kopia bat. Horrez gain, eskaneatuta ere bidali daitezke argazkiak honako helbide elektronikora: ehunurte@gmail.com Argazkiaren gutxi gorabeherako data eta jabearen izen-abizenak adierazi behar dira.

Emaitzak

FUTBOLA

Orioko 1 - Haundi 2
Zarautz 4 - Elgoibar 1 (Erreg.)
Zumaiako 1 - Elgoibar 2 (Jub.)
Elgoibar 3 - Anaitasuna 1 (A Kad.)
Elgoibar 1 - Lagun Onak 2 (B Kad.)
Elgoibar 3 - Aloña Mendi 2 (Oho. inf.)
Elgoibar 1 - Orereta Kafea 0 (Inf. Txiki)
Zumaiako 1 - Elgoibar 3 (Aleb.)

SASKIBALOIA

Viento Sur Elgoibar 52 - Alde Zaharra B 56

ARETO FUTBOLA

Cadrete 1 - Concepto Egile 4 (Naz. B)

ESKUBALOIA

Zuazo 35 - Lauko Elg. 19 (Senior emak.)
Trapaga 32 - Alcorta Forging Group 22 (Senior giz.)
Urnieta 21 - Gabaz Elg. 22 (Senior giz.)
Tecnifuelle 29 - Aiala 22 (Jub. neska.)
Beristain banaketak 34 - Aloña 25 (Jub. mut.)
Pneumax 19 - Aiala 19 (Kad. neska.)
Oñati 12 - Casa Astigarraga 20 (Kad. neska.)
Saieko 35 - Bankoa 33 (Kad. mut.)
Bidasoa 28 - Deca Elg 26 (Kad. mut.)
Dario Bus 41 - Pulpo 13 (Inf. neska.)
Cometel 45 - Eibar 4 (Inf. neska.)
Oñati 4 - Federopticos Ikus 7 (Inf. neska.)
Eibar A 27 - Hotel Txarriduna 14 (Inf. mut.)
Murgil Elg. 36 - Amenabar C 20 (Inf. mut.)

Agenda

PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barixakua, 27
20:00 Lagunak - Loiolatarra (Gomazko paleta, 2. Maila)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 28
12:00 Elgoibar - Aloña Mendi (Oho. Kad.)
16:30 Haundi - Hondarribia
Domeka, 29
10:45 Elgoibar - Anaitasuna (Alebin)
16:00 Elgoibar - Getariako Keta (Erreg.)

ARETO FUTBOLA (IMH kiroldegian)

Domeka, 29
12:30 Concepto Egile - Santurtzi (Naz. B)

ESKUBALOIA (OLAIZAGA KIROLDEGIAN)

Zapatua, 28
10:00 Ikus - Urola (Inf. neska.)
11:15 Txarriduna - Eibar B (Inf. mutilak)
16:00 Astigarraga - Ordizia Iruena (Kad. neska.)
17:45 Gabaz - Urola (Sen. mutilak)
19:30 Alcorta - Askartza (Senior giz.)
Domeka, 29
09:30 Sukia - Zarauz (Aleb. mut.)
10:45 Bankoa - Bidasoa A (Kad. mut.)
12:15 Deca Elg. - Urnieta (Kad. mut.)

LANA.....

Eskaerak

Portalak garbitzeko prest nago. 617 571 210

Pertsona nagusiak zaintzeko prest, esperientzi handia, lehen sorospen tituluduna, orduka lan egingo nuke. 632 687 874

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 667 301 325

lan egiteko prest nago. 602 815 492

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. 631 562 380

Adinekoak zaintzen, portalak garbitzen edo sukaldari laguntzaile lan egiteko prest. 637 074 529

Pertsona nagusiak zaintzeko eta etxeak eta tabernak garbitzeko prest. 943 901 752

Banatzaille, zamalan eta garbiketa lanetarako prest. 666 107 260

Sukaldari laguntzaile lanetarako, nagusiak zaintzeko edo tabernak garbitzeko prest. 677 250 560

Sukaldari laguntzaile lanetarako eta adinekoak zaintzeko prest nago. Janari manipulatuzaile titulua eta nagusiak zaintzeko ikastaroak eginak ditut. 661 064 027

Umeak zaintzeko, interna moduan gauzez edo orduka jarduteko prest. Esperientzia handia. 631 832 388

Garbiketan edo ume zein adinekoen zaintzan lan egiteko prest. 632 889 041

24 urteko mendaroorra astegun arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest. 646 738 095

Eskaintzak

Doitze eta muntaia mekaniko lanetan ibilitako pertsona behar da. Bidali curriculum-a Zarauzko 309 Posta Kutzara.

ETXEBIZITZAK.....

Alokairua

Pertsona nagusientzako bereziki egoikitutako etxebizitza eskaintzen dugu alokairuan. Erdigunean dago. 600 901 675

Familia batek bi logelako etxea hartuko luke alokairuan Elgoibarren. Gehienez 400 euro ordain ditzakegu. 637 207 806

Familia batek hiru logelako etxebizitza hartuko luke alokairuan Elgoibarren. 632 198 561

Etxe txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 632 175 172

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. 677 259 560 / 661 064 027

Salmenta

Babes ofizialeko etxebizitza salgai lñigez Karkizao kalean. Oso egoera onean, ia erabili gabea. 75 metro koadro, 3 logela, 2 komun eta altzariekin guztiz jantzia. Bizitzera momentuan sartzeko. Trastelekua eta garajea barne. 679387935 (arratsaldez-leire).

GARAJEAK.....

Salmenta

Garajea salgai Sigmako industriagunean, Antxustegi parean. 28 m² goiko ganbararekin. 651 525 602.

LOKALAK.....

Alokairua

Elgoibarko erdigunean taberna-kafeategia emango nuke errentan. 605 741 485

BESTELAKOAK.....

Hiru hilabete eta erdiko bi katu emango nituzke opari. Ondo zainduko dituen norbaitentzat. 943 740 687/629 434 161

Lur saila erosi edo alokatuko nuke oirlategiarekin. 943 740 318

Tornuak egiteko tailer mekanizatua alokairuan ematen dut, erosteko aukerarekin. 670406748

Haurtxoarentzat Maxi-Cosi eta Bugaboo Camaleon beltza salgai (kapazoa eta aukitxoa), osagarriak barne eta zakuak ere bai. Egoera onean. 500 euro. 665727979

Bigarren eskuko Venus 4 sport etxeko elbarrituenzako motorra salgai. 675 711 860

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaiejak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garaiejak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Etxebizitza bat norbaiti errentan emanez gero, maizterrak izango al luke eskubiderik etxejabeen elkartetik kalte-ordaina jasotzeko honek egindako obrek kalterik eragingo baliote?

Maizterrak ez du eskubiderik izango bizilagunen etxejabeen elkarteari eskatzeko, bai, ordea, bera bizi den etxeko jabeari, izan ere, errenta kontratuari lotutako gaia da. Komunitateko obrek maizterren batengan eragina izanez gero, eskubidea izango du etxejabearen ordaina jasotzeko, beti ere, Hiri-Errentamendu Legeak agindutakoaren eta errenta-kontratuan hitzartutakoaren arabera.

Etxea errentan ematen duenak eskubidea izango du etxejabeen elkartetik berari kalteordaina emateko, maizterrak komunitateko obrei dagozkie kopurua ordaindu ez diolako.

Alokairu kontratuan horri buruzko ezer zehaztu ez bada Hiri-Errentamendu Legeak etxeei buruz agindutakoa ezarriko da. Bi alderdiek aurrez adostu badute hiri-finkei dagozkien alokairu harremanetan Kode Zibileko arauak jartzea, araudi hori jarriko da. Kasu batean zein bestean maizterrak alokairu-kontratu deuseztatu eta kaltegalerei dagozkien ordainak eskatu ahal izango ditu.

AHOLKUA: Jabeen Elkarteak ez du zertan jakin alokatzaile eta maizterraren arteko gai horiei buruzko ezertxo ere. Baina alokatzaileak maizterrari ordaindu behar dionean alokatzaileak eskubidea izango du Jabeen Elkarteak berari abonatzeko ordaindu behar izan duen kopurua.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Danel**. Azaroaren 21ean 5 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat etxeko guztien partez!



Zorionak, **Malen**! Zapatuan 10 urte. Jarraitu horren alai eta zintzo. Musu handi bat familiariaren partez.



Zorionak, **Itsaso**. Hiru muxu potolo etxeko guztien partez, bereziki Beñat, Oihane eta Saioareen partez.



Zorionak, **Jare**, ostegunean lau urte handi bete zenituelako. Musu potolo bat familiariaren partez.



Zorionak **Alain**! zortzi urte handi!



Oraingoan 7 urte eta hainbeste patxo potolo. Zorionak, **printzesa**.



Zorionak **txapeldun**! Topera gozatu eguna. Segi hain jatorra izaten. Asko maite zaitugu. Aitatxo, amatxo eta Oihane!



Zorionak, **Sara**! Gaur 3 urte bete dituzulako. Familia eta lagun guztien partez. Patxo haundi bat!



Zorionak **Beñat**. Santa Zezilia egunean 8 urte bete zenituelako. Belarrietatik 8 tirakada eta mila muxu etxekoien partez.



Zorionak, **Ihintza eta Ekhi**, azaroaren 9an eta 29an zuen urtebetetze eguna izan zelako eta izango delako. Aititite eta amamaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

BARREN astekarian banatzaileak behar dira



BALDINTZAK:
16 urtetik gorakoa izatea.
Euskaraz jakitea.

Interesatuak 943 741 112 telefonora deitu
edo barren@elgoibarkoizarra.eus
helbidera idatzi.

basquestay



www.basquestay.com
info@basquestay.com
606 747 756

Apartamentu baten jabe bazara, alokatu eta diru iturri bilakatu

27 BARIXAKUA

09:00-21:00 Elikagai bilketa erraldoia. Elgoibarko hainbat saltokitan, Elgoibarko Gizarteratze Mahaia.

20:00 Kontzenterazioa Sarek deituta, adineko presoak aske uzteko eskatuz. Kalegoen Plazan.

22:30 Zinegiro goritan. *Te doy mis ojos*. Sutegixa gaztetxean.

28 ZAPATUA

09:00-21:00 Elikagai bilketa erraldoiaren bigarren eguna.

09:00-14:00 Baserriko produktuen salmenta, Kalebarren plazan eta ganadu erakusketa, Aita Agirre plazan.

10:00-12:00 Palestinako umeentzako material bilketa. Pablo Garridok. Maalako parkean.

10:30 Literatura tertulia: *Metamorfosia* (Kafka). Sutegixa gaztetxean.

11:30-12:00 Sukaldaritza tailerra. Belaustegi jatetxeko Josu Mugerza sukaldariaren errezeta baserriko sasoiko produktuekin. Kalebarren plazan.

12:00 Josu Mugerzaren pintxo dastaketa. 5 eurotik gorako erosketa egin behar da baserriarren saltokietan.

12:00 Kale kantariak. Kalebarrenetik hasita.

12:00 Lipdub-aren entsaioa **13:00** Grabazioa. Ondoren, pintxo-potea.

1 MARTITZENA

17:00 HIESaren aurkako nazioarteko eguna. Hitzaldia: *La mujer en la madurez*. Hizlaria: Lorena Pidal. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

2 EGUAZTENA

18:00 Hitzaldia: *HIESaren aurkako eta sexuaren bidez transmititzen diren gaixotasunak*. Antolatzaileak: Gurutze Gorria eta Ongizate Saila. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

3 EGUENA

21:30 Udaizkeneko mendi emanaldi zikloa. *Burning Kharkas: Lantango Himalaian esplorazioa eta eskalada*. Ibañerico. Antolatzailea: Morkaiko M.E. Lanbroa tabernan.

4 BARIXAKUA

19:00 Kantu Kalejira Mendaron, Euskararen eguneko ospakizunen harira. Antolatzailea Arno.

Nabarmenduak Txaranga eguna

Bihar, zapatua, azaroak 28, Ustekabe fanfarrearen 15. urteurrena ospatzeko aitzakian Txaranga Eguna egingo dute Eibarren. 17:30ean auzo guztietan barrena kalejirak egin ondoren, 19:30ean Urkizutik, kalejira erraldoia (180 musikari) abiatuko da. Gero, 20:00etan fanfarreen alardea egingo dute Untzagan.



II. URTEURRENA

Asier Makazaga Bengoetxea

Berrito itzuliko balitz iragana gure artera, mugiko nuke mundua egon gaitezen batera, baina patuak tamalez ez daki egiten atzera, eta zu bidali zaitu gurgandik abiatzera.

Bihotz oneko pertsona, oso maitatua bera, kirolzale, irakasle Amorebietako "fiera" familia eta lagunak ez goaz zu ahaztera: gure aita eta senarra beti izango zera.

Zure senideok eta lagunok ez zaitugu ahazten.



Zinea (Herriko Antzokian)

'La cumbre
escarlata'

27 Barixakua 21:30
28 Zapatua 19:00, 22:15
29 Domeka 19:00
30 Astelehena 21:30

'Inside out'
(Del reves)

28 Zapatua 16:30

'Euskara
munduan'

3 Eguena 21:30
(Ongarri eta Euskara Saila)



Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

27 Barixakua ORUESAGASTI
28 Zapatua BARRENETXEA
29 Domeka BARRENETXEA
30 Astelehena IBAÑEZ
1 Martitzena GARITAONANDIA
2 Eguaztena ETXEBERRIA
3 Eguena FERNANDEZ
4 Barixakua YUDEGO

22:00 - 24:00

Astelehenetik domekara
GARITAONANDIA

24:00 - 09:00

ELORZA (Eibar)
Juan Gisasola, 18 - 943 206 100

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel.: 943 751 384

Telefono interesgarriak


Elgoibarko Izarra.....	943 741 626
Udalzaingoa.....	943 741 394
Udalaren arreta bulegoa...	943 741 050
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700
Bake epaitegia.....	943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008
Hirigintza.....	943 744 384
Mankomunitatea.....	943 700 799
Debemen.....	943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414
Berdintasun saila.....	943 741 050
Euskara saila.....	943 744 366
Kultura saila.....	943 742 158
Udal liburutegia.....	943 743 525
Gazteria saila.....	943 531 319
Gazte informazio gunea...	943 257 986
Ludoteka.....	943 748 883
Gaztelekua.....	943 743 228
Enplegua/Merkataritza.....	943 741 050
Emugi.....	943 747 371
Kiroldegia.....	943 744 415
Mintxeta.....	943 747 356
Musika eskola.....	943 742 145
Udal euskaltegia.....	943 742 731
AEK euskaltegia.....	607 601 423
KZgunea.....	943 023 640
Jubilatuen biltokia.....	943 740 526
San Lazaro egoitza.....	943 740 296
Eguneko zentroa.....	943 744 565
Kontsumo bulegoa.....	943 743 088
Taxi geltokia.....	943 740 898
Larrialdiak.....	112
Gurutze gorria.....	943 743 864
Eusko tren.....	902 543 210
Pesa.....	902 101 210
Jokalari anonimoak.....	657 710 156
Alkoholiko anonimoak.....	629 141 874
Correos - Posta.....	943 741 547
Mendaroko Udala.....	943 033 282
Liburutegia.....	943 033 291
Bake Epaitegia.....	943 033 289
Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Hautzaindegia.....	943 755 219
Musika Eskola.....	943 244 275
Taxi.....	607 57 57 28
Ospitalea.....	943 032 800



Vicente Etxeberria Agote

"Ballibar"

2015eko azaroaren 22an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Eire Vila




Mikel Olaizola



Urak ekarri zuen lehenengo aberastasuna, Gaztelako artilearen itsasorako bidean, hamaika jitetako truke eta negozioen zentro bihurtuz. Ordukoak auzotarren izerdiak eta odolak, jauntxo bakar batzuek arpilatuak eta armarridun jauregi dotoretan bilduak.

Urak itzuli zuen osterera ere oparotasuna batzuentzat, gailupak lehorretan geratu ondotik. Inoiz inorena izan ez zen iturri hari izena jarri zion norbaitek eta inguruko burgesen aisi leku bihurtu zen auzoa. Giltzurrunetako minak arintzen kape-ladun *señoritoak*, neskek marmol italiarrari distira ateratzen zioten bitartean, belauniko, giltzurrunak minberatu arte.

Bertakoek diote urak eraman zuela behin betiko garai hura ere, azken ufal handian, honezkero nabaria zen gain-behera itzulezin bihurtuz. Geroztik hustuz eta eroriz Altzola;

erdigunetik ertzerara desplazatua, progresuak inguratua: nazionalak, trenbideak, autopistak itoa; ibaia arnas eta esperantza bakar. Harlanduzko hormetan leiho eta atea itsututa, teillatu-hegalak erortzen, errotuluak argia galduta. Ahanzturan salgai dagoen estanpa dekadentea osatu digu.

Ez dakit beste urrezko aldirik etorriko den; lehenagoko lonjak, geroko hotelak, gaurko eraikin hutsak zer bihurtuko diren bihar. Bitartean herri honen absurdoak agerian: jenderik gabeko etxeak, etxerik gabeko jendea; aske ez diren gazteak eta gazte ez diren auzoak zimeltzen.

Euria ari du gaur ere, ilun eta umel; baina ez da gora begira itxaroteko garaia. Bazterretan dago etorkizuna herri honetan, eta Altzola da gure bazterra. Sinistu eta landu dezagun alternatiba. Daukan edertasun eta indar dena herri-ratzen eta eraldatzen asmatuko dugu, oraindik onena etortzeko dago!

*“Bazterretan dago etorkizuna herri honetan,
eta Altzola da gure bazterra”*




Angel Arocena Etxabe

2015ko azaroaren 22an hil zen, 97 urte zituela.

**Aitatxo, aitxitxa maitea,
jarraitu, orain zerutik
gure bizitzen itsasargi izaten.**

Etxekoak



Sor Margarita Arrizabalaga Urbieta

2015eko azaroaren 22an hil zen, Madrilen, 88 urte zituela.

**Honaino ekarri zaituenak,
badugu fede
eramango zaituela
aurrera ere.**

Bere arimaren aldeko meza domekan, irailaren 29an,
12:00etan izango da Mendaroko Azpilgoetako
Jasokundearen Andre Mari parrokian.

Aita-ama: Andrés(t) eta Maria(t)
Anaia-Arrebak:

Pako(t)-Libe(t)-Isabel, Esther-Jose Mari, Lourdes-Enrique,
Felix-Rosi, Jose Mari-Maria Jesus eta ilobak.
Mila esker



Dolores Leyaristi San Martin

2015eko azaroaren 23an hil zen, 92 urte zituela.

**Itzali da Metalkuako argia,
baina bizirik darrai zure bizi pozak
gure bihotzean.**

Etxekoak



AZAROAK 25

Emakumeenganako Indarkeriaren
aurkako Nazioarteko Eguna



• HILKETA

• ERASO FISIKOA

• MEHATXATU

• BORTXAKETA

• SEXU-ABUSUA

• GARRASI EGIN

• IRAINDU



• MIKROMATXISMOA

• PUBLIZITATE SEXISTA

• XANTAIA EMOZIONALA

• IZEN ONA KENDU

• ALDE BATERA UTZI

• ERRUDUN SENTIARAZI

• HIZKERA SEXISTA

• KONTROLATU

• UMORE SEXISTA

• MESPRETXTATU

• UMILDU